



Zurriolako Ataria

48. alea

2019-02-01

Kaldereroak (oharra)

Asteazkenean ikastolako webgunean argitaratu genuen bezala, gaurko Kaldereroak Soroan eta Manteon ospatuko ditugu.



LH1ekoak Adinekoen egoitzan

LH1ko ikasleek DomusVI Villa Sacramento adinekoen egoitzan izan dira eta bertako egolarrei kalderero dantza eta kantuekin goiza alaitu diete.



Kaldereroak entseguak

Eguraldi txarrari aurre eginez, kaldereroetako entsegu orokorra egin genuen asteartean Ategorrietan. Dagoeneko prest ditugu gaurko kantu, dantza, zartagi eta panderoak.



Orientazio akademikoa GKEsekoentzat

Astelehen goizean, Kirol zikloko 2. mailako ikasleek orientazio saioa izan dute online graduak eskeintzen dituen UNIR unibertsitatearen eskutik.



Prestakuntza jantokiko langileentzat

Lehenengo asteartean hasiera eman zioten Hurrako jantokian Ikastolako jangeletako langileentzat hiru astez zabalduko den formakuntza. [\(Irakurri+\)](#)



Sansebastianetako oroitzapenek bizirik diraute oraindik. Horren lekuko Joxemari Artolaren bideoa eder hau duzue.

elkarrekin hezkuntza eraldatzen
2019-20 MATRIKULAZIO EPEA ZABALIKI
HH, LH eta DBH

Otsailaren 8a bitartean matrikula egiteko epea irekita dago. Informazio gehiago [bertan](#).

OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Groseko Hautxokoa. Xirimiri taldea. Goiz pasa. Otsailak 7.
- **LH1-2:** Tinko. Zinema euskaraz. Goiz pasa. Otsailak 4.
- **LH3-4:** Igeriketa. Otsailaren 4tik 7ra. [Zirkularra](#).
- **LH5-6:** Santa Ageda. Barne ospakizuna. Otsailak 4.
- **DBH2-3:** Eski irteera. Ereta (Arette). Otsailak 2-3.
- **DBH3-4:** Antzerkia. Bazkaria etxetik ekarri. Otsailak 4.
- **Inauterietako jantziak:** Txostena.
- **Eskola Kirola:** 10. jardunaldia. A eta B.
- **Antzerki Eskola:** Batzordearen berriztapena. Interesatuak izena eman [bertan](#).
- **Groseko Hautxokoa & Gaztelekua:** Otsaileko [programazioa](#).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Otsailak 2-6](#).

ikastola
elkarrekin hezkuntza eraldatzen